



www.pixkanakakaskari.org/vital-iv-epsv

Merkatuko erreferentziak



Eurostoxx50: **-%19,7**
Ibex35: **-%7,06**
Bonoa 10urte: %2,45
KPI: %3,8 (maiatza)

2022 metatutako emaitza

-%8,38

Zorroaren banaketa

Errenta finkoa. %64,6
Err. aldakorra. %31,1
Inb. altern. %4,3



Ekaina 2022

Falta zitzaiguna...

Joan den hilean burtsen lurreratze leunaz hitz egin genuen, baina hilabete honetan merkatuak pikutara joan dira.

Burtsek behera egin dute eta interes-tasak urteetan ikusi ez ditugun mailetara igo dira. Analistak atzeraldiaz hitz egiten hasi dira, eta udazken mugitua izango dugula. Gogor heldu beharko dugu ekaitzari aurre egiteko.

Uda ona pasa!



Gure BGAEen kudeaketa

Merkatuak azken hilabete hauetan ez dira atsedetik ematen ari, gainera aurreikuspenak ez dira onak epe laburrean, baina gure BGAEa epe luzeko inbertsio-epe batekin kudeatzen da (18 eta 20 urteko erreferentziarekin) eta hauek dira kudeaketa ildoak.



Errenta aldakorra: posizioa handitzen jarraitu behar dugula deritzogu, nahiz eta egungo erorketek zorroaren balorazioari kalte egiten dioten, epe luzerako estrategian zehaztutako esposizioa lortzeko inbertsioak egitea beharrezkoa iruditzen zaigu.



Errenta finkoa: interesen igoyerarekin, gure errenta finkoko zorroaren balorazioak sufritu egiten du, baina aukerak sortzen dira epemugara iristen diren inbertsioak interes tasa altuagoetan berritzeko eta iraupena handitzeko.



Inbertsio alternatiboa: hemen ere posizioa handitzen dugu. Inbertsio alternatiboak merkatuetatik deskorrelazioa eragiten du, besteak beste, epe luzera inbertitzeagatik ilikidezi-primei esker.



Gure BGAEak sarrera bermatuak ditu: ekarpenen egutegi zehatz bat dugu, merkatuen mende ez dagoena eta posizioak desegin behar izan gabe inbertsioak egiteko aukera ematen diguna.



PKk sinatutako Kutxabanken III. Hitzarmen Kolektiboan jasotakoaren ondorioz, Kutxabankek 3.400€ baino gehiago jarri behar ditu urtean Vital IV BGAEko bazkide bakoitzeko.

PK aldizkariaren harpidetza egin dezakezu esteka honetan: <https://pixkanakakaskari.org/aldizkaria>